



Landaben industrialdea, E/F kalea - 31012 IRUÑA  
Tel.: 848 848 42 37/27 - Faxa: 848 42 37 30  
Weba: [www.cfnavarra.es/insl](http://www.cfnavarra.es/insl)

Nafarroako Osasun  
Publikoaren eta Lan  
Osasunaren Institutua



Instituto de Salud  
Pública y Laboral  
de Navarra



**Amatasunaren babes  
lanean**

**Jardunaldi Teknikoa**  
Iruña, 2017ko maiatzaren 4a

Nafarroako Osasun  
Publikoaren eta Lan  
Osasunaren Institutua



Instituto de Salud  
Pública y Laboral  
de Navarra

## **AURKEZPENA**

Lanean amatasuna babesteko eskubidea jasota dago egungo legedian, xedea izanik saihestea edo ahalik eta gehien murriztea haurdun dagoen langileari nahiz haren umeei kalte egiten ahal dieten laneko arriskuen eragina.

Laneko arriskuen esposizioei buruzko datu xehakaturik ez dagoen arren, kalkulatu da langile anitz daudela amatasunerako kaltegarri izan daitezkeen zenbait arriskuren eraginpean: fisikoak, kimikoak, biologikoak, ergonomikoak edo psikosozialak. Nafarroan, 2016ko bigarren hiruhilekoko Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuen arabera, 138.800 emakume inguruk osatzen dute biztanleria aktibo femeninoa eta horietarik %70 egon daitezke ugaltzeko adinean.

Nafarroako Lan Osasuneko Ekintza Planaren lehentasunetako bat emakume langileen amatasuna babestea da. *Jardunaldiaren helburua da arlo honetan ardurak dituzten eragileei aurkeztea zer helburu dituen laneko arriskuei aurrea hartzeko programak amatasun egoeran dauden langileendako:*

- Sustatzea laneko arriskuen prebentziorako zerbitzuek Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionala-LSHINaren "Arriskuak ebaluatzeko eta amatasuna lanean babesteko jarraibideak" erabil ditzaten Nafarroan.
- Bultzatzea, Nafarroako enpresetan, prozedurak osatu eta prestatu daitezkeen amatasunerako lan arriskua behar bezala kudeatzeko, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean ezarritakoaren arabera.

## **NORENTZAT:**

Prebentzio zerbitzuetako teknikari eta osasun langileentzat, prebentzioko ordezkari entzatzat, sindikatu entzatzat eta enpresaburuen erakunde entzatzat ordezkari entzatzat eta, oro har, gaian interesa duten guzti entzatzat.

**TOKIA:** NOPLOIko ekitaldi aretoan (Landaben)

## **PROGRAMA**

08:45	<b>Harrera eta dokumentazioa ematea</b>
09:00	<b>Aurkezpena: laneko arriskuei aurrea hartzeko programa amatasun egoeran dauden langileendako</b> Iñaki Moreno Sueskun jauna. NOPLOIko Lan Osasunaren Zerbitzuko burua.
09:15	<b>NOPLOIren jarduketak amatasunerako arriskuei aurrea hartzeko kudeaketa dela-eta.</b> Amelia Aguilar Bailo andrea. NOPLOIko Laneko Arriskuen Prebentziorako Ataleko teknikaria.
90:45	<b>Lanean amatasunerako arriskuak ebaluatzeko eta amatasuna babesteko jarraibideak</b> M <sup>a</sup> Dolores Solé andrea. Laneko Medikuntzako Unitateko burua LSHINaren Lan Baldintzen Zentro Nazionalan.
10:30	<b>Atsedena - Kafea</b>
11:00	<b>Amatasuna eta edoskitze naturala: enpresetan arriskuei aurrea hartzeko prozedura</b> Neus Moreno Sáenz andrea. Laneko medikua. Kataluniako CCOOko Emakumeen idazkaria.
11:30	<b>Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren jarduna Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko legearen 26. artikulua betetzeko</b> Sergio Bescós Rubio jauna. Laneko ikuskatzailea.
12:00	<b>Solasaldia</b>
13:00	<b>Amaiera</b> M <sup>a</sup> José Pérez Jarauta andrea. NOPLOIko zuzendari kudeatzailea.